

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mirari Garmendia Otamendi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1969)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa. Aita Azpeitiko Urrestilla auzokoa zuen eta ama Donostiako Loiola auzokoa. Familiako autoeskolan egin du lana urte askoan. Lau seme-alabaren ama. Elkarrizketa egin genionean antropologia ikasten zebilen; "[Erditzea erdigunera](#)" proiektua zuen esku artean. Genero ikuspegiari buruzko elkarrizketa izan zen.

Zintak

DON-187

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2018-12-20
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Noiz konturatu zinen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozialaz?

- **Erref:** DON-187/003
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Oso txikitatik izan da Mirari "maritxiko". 80. hamarkada du bereziki gogoan, gauzak argi izan zituen garai bat zelako. Ez zuen gaur egun irudiarekiko dagoen kezkarik. Autobusean gaizki psatzen zuen Loiolan bizi ziren soldaduen jarrera zela eta.

2. Irudiaren garrantzia lehen eta gaur egun

- **Erref:** DON-187/004
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Kezka zabala da gaur egun irudiarekiko daukaguna, Mirariren iritziz. Garai batean gertatzen ziren gauzak gaur egun erraz salatuko lirateke, baina gaur egun irudiak sortzen duen presio sozialaren atzean diskurtso garatu bat dago, eta zailagoa da hori deseraikitzen. Emakume irreal eta eskuraezinen irudiak etengabe ikusten ditugu egunero, eta gazteengan zuzenean eragiten dute.

3. Etxean ere mutilak eta neskak ezberdinak

- **Erref:** DON-187/006
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:08:57. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxean, lanerako eta jolaserako roletan, ezberdintasuna ikusten zuen nesken eta mutilen artean.

4. Lan-mundu maskulinoan murgilduta

- **Erref:** DON-187/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Oso goiz sartu zen lan-munduan Mirari. Aitak autoeskola bat zuen, eta bertako bulego-lanak egiten aritzen zen bera. Oso esparru maskulinoa zen hau, eta sarritan anaiaren itzalean zegoela sentitu zuen. Gero autoeskolan klaseak ematen hasi zen, eta emakume izanagatik hamaika gauza entzun behar izan zituen Mirarik.

5. Emakumeak eta gizonak eskolaren eremuan

- **Erref:** DON-187/009
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Autoeskolan urteak eman zituen lanean, eta arlo hartan ez zuen hoberako aldaketarik ikusi emakumeekiko. Eskolan eta etxean, aldiz, bai. Hala ere, ikastolan egiten den banaketan behintzat gizonak alderdi ludikoaz arduratzen dela sumatu du.

6. Umeen heziketa eta enplegua askotan bateraezin

- **Erref:** DON-187/010
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaur egungo bizitza erritmoak oso zaila jartzen du umeen heziketa lan batekin uztartzea. Bikotekide bat etxean geratzera darama horrek askotan, emakumea kasu gehienetan, eta etokina beste askotan. Kontrara, ekonomikoki geroz eta zailagoa da umeak mantentzea, eta bi soldata behar izaten dira horretarako. Gizartean umeen zaintzak eta etxeko lanek duten desprestigioaren eta duintasun faltaren islada dira lan hauetako soldata baxuak.

7. Haurren zaintza gizarte mailako arazo

- **Erref:** DON-187/011
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gazteek telebistan ikustean mezu asko barneratzen dituzte, eta egoera asko normalizatu, nahiz eta normalak ez izan. Mirariren etxean bertan gizona izan da enplegua mantendu duena, eta Mirari haurren zainketan aritu da azken urteetan. Gizarte mailan ez da enplegu gisa hartzen, baina hamaika lan egiten dira haurren zaintzan, baloratzen ez den arren.

8. Berdintasun faltsua?

- **Erref:** DON-187/012
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:21:03. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Askotan berdintasunaren irudia ez da berdintasun erreala. Askotan emakumeak ez dira euren egoeraren kontziente. Amatasunaren irudi soziala ere ez da erreala, amatasuna ez da saltzen diguten bezalakoa.

9. Emakumea beti errudun I

- **Erref:** DON-187/014
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumea beti gaizki ikusirik dago: ama denean zein ama ez denean, izandako ume kopuruagatik, etxetik kanpo lan egiteagatik, etxean lan egiteagatik... Oso erraza da sozialki ama bat kulpabilizatzea.

10. Emakumea beti errudun II

- **Erref:** DON-187/015
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:29:09. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Seme-alabak euren artean oso ezberdinak izaten dira, eta garapen bat izaten dute denborarekin. Emakumea euren umeen garapenaren prozesuan ez egoteagatik askotan kritikatu izan da, baina zaila da konturatzen denean egotea zein zaila den.

11. Feminismoa eta amatasuna

- **Erref:** DON-187/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Amatasuna inposatuta dute emakumeek. Sistema bikotearen inguruan dago eraikita Mirariren iritziz. Inposaketa hori feminismoak salatu egiten du, baina batzuetan emakume batek naturalki desiratzen du seme-alabak izatea, eta honek feminismoaren eta amatasunaren arteko auzia sortzen du.

12. Etxean erditzea eta biolentzia obstetrikoa

- **Erref:** DON-187/019
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxean erditzearen gaia aztertzen ari da Mirari. Gaur egungo erditze gehienak medikalizatuak eta interbentzionistak dira, baina bestelako erditzeak dituzten emakumeak ere badaude. Esperientziari begiratuta, biolentzia obstetrikoa jasan zuela konturatu da Mirari, beste emakume askok bezalaxe.

13. Biolentzia obstetrikoa

- **Erref:** DON-187/020
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:40:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Biolentzia obstetrikoa zer den. Emakumearen borondatearen kontra, emakumaren gaineko erabakiak hartzea, tratu txarra ematea... Bizipenen araberakoa da beti ere.

14. Etxean erditzea gaizki ikusirik

- **Erref:** DON-187/022
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxean erditzean bestelako tratu bat bilatzen da, errespetuzkoa. Ingurune

ezagun batean, emaginarekin. Emakume batzuek etxean erditzen dute aurretiaz ospitalean izandako esperientzia txarragatik. Ospitaleko biolentzia ezkutatua dago eskotan, eta etxean erditzea gaizki ikusirik dago, babes gutxikoa delakoan.

15. Etxean erditzea arriskutsutzat dauka jendeak

- **Erref:** DON-187/023
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:44:43. **Bukatu:** 00:47:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxean erditzea zuzenean arriskuarekin lotzen da sozialki, ospitalean erditzea etxean erditzea baino seguruagoa balitz bezala. Haurdunaldiari jarraipen handia egiten zaio gaur egun, eta etxean erditzea posible da dena ondo dagoenean. Emakumeei euren buruaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea ere kendu egin zaie, euren ordezkari gizonetako medikuak hartzen baititu askotan.

16. Gorputzaren irudi mekanizista

- **Erref:** DON-187/025
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:50:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai batean natural gisa ulertzen zena, gaur egun modu mekaniko batean ulertzen da, esaterako, gorputza. Dena neurtuta dago denborarekin, gorputzaren ziklo naturala errespetatu gabe.

17. Antropologia eta generoa

- **Erref:** DON-187/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:50:02. **Bukatu:** 00:52:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Antropologia ikasketak egiten ari da Mirari, eta bereziki interesgarria egiten zaiona generoaren ikuspegia da. Generoari eta sexuari buruz eguneratzen ari da Mirari ikasketei esker.

18. Generoa eta sexua, bi kontu desberdin

- **Erref:** DON-187/027
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:52:34. **Bukatu:** 00:54:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Umeak, euren genitalen neurrian oinarrituta, neska edo mutil bezala hezten dira, baina, kasu askotan, sexuak ez du generoa definitzen. Zakildun emakumeak eta klitoridun gizonak daudela ez da sozialki onartzen, nahiz eta errealitatea hori den.

19. Emakumeak presentzia handiagoa dauka orain

- **Erref:** DON-187/029
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:57:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Plazan, bertsoetan... emakumeak askoz ere presentzia handiagoa dauka beste garaietan baino. Alde horretatik, Mirarik aurrerapena ikusten du. Bestetik, lehiakortasunaren munduan emakumeak lan bikoitza du gailurrera iristen. Gizonak agintzen duten mundu honetan, emakumeak eremu horietan ikustera ohitu behar da gizartea, eta horretarako ezinbestekoa da emakumeen presentzia minimo bat bermatzea.

20. Emakumeen soldata baxuagoa

- **Erref:** DON-187/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lan munduan emakumeak soldata baxuagoa duela geroz eta gehiago entzuten du Mirarik bere inguruan. Askotan guk geuk ezkututzen dugu irabazitako soldata, eta horregatik ez da jakiten gizonena eta emakumeena desberdina dela.

21. Zaletasunen eta betebeharren arteko oreka

- **Erref:** DON-187/033
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bikoteak oso ondo orekatu behar ditu gauzak haurrak zaintzeaz gain euren bizitza mantentzeko. Askotan gizona tabernan egotea gaizki ikusirik dago, baina gimnasioan, edota entrenatzen badago, justifikaturik dagoela ematen du.

22. "Ume bat hezteko komunitate bat behar"

- **Erref:** DON-187/035
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:03:52. **Bukatu:** 01:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umeen heziketa gauza zaila da. Jaiotzaren gaineko ardura soziala badago, baina behin umea jaiota, umearen heziketarako laguntzarik ez. Umea jaiotzen denean, sistema umearen heziketaz eta horren kostuaz ahaztu egiten da.

23. "Umeak estimulatuegiak daude"

- **Erref:** DON-187/036
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:06:46. **Bukatu:** 01:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Pantailen (internet) bidez hamaika ate irekitzen zaizkie haur eta nerabeei. Umeak kontsumitzeko prestatzen dira gaur egun, negozio handia baita teknologia berriena.

24. Gurasoak bai, lagunak ez

- **Erref:** DON-187/038
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:09:35. **Bukatu:** 01:12:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umeen eta gurasoen arteko harremana ezin da izan laguntasun baten parekoa Mirarirentzat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com